
KUTXAZABAL ZENTROA – MONEDA BASERRI GUNEETARAKO ARAUDIA

- Enpresek edo elkarateek eska ditzakete KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserria . Eskaerak data baino 30 egun lehenago egin behar dira gutxienez.
- Eskatzaileak jardueraren garapenaz edo eskaeraren edukiaren egitasunaz erantzukizun-deklarazioa onartu behar du, baita KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserria lagatzeko araudia ere.
- Debekaturik dago helburu ekonomikoekin salmenta, publizitatea edo sustapena egitea KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriko guneetan.
- Egile, edizio, erreprodukzio, publizitate, erakusketa eta abarren eskubideengatik baimena lortu, tasak ordaindu eta abar egin behar dituzten ikus-entzunezkoak, entzuketak edo beste edozein elementu erabiltzen baditu erabiltzaileak aretoan, erabiltzaileak eguneraturik izan behar du erabilera horretarako legeak eskatzen duen guztia.
- KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserri gunea lagatzera mugatzen da. Ustekabeko zirkunstantziaren baten aurrean KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriak ekitaldiren bat bertan behera utzi behar baldin badu, ez zaie horregatik kalte-ordainik emango, inolako kontzeptu pean, antolatzaileei, parte-hartzaileei edo beste esku-hartzaile batzuei.
- Programazio-aldaketarik gertatzen bada, aldez aurretik KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriari jakinarazi eta bere baimena lortu beharko da aldaketa benetan gauzatzeko.
- Ekitaldi bakoitzaren garapenean aretoetan dauden elementu tekniko eta apaingarriak bakarrik erabili ahal izango dira, aldez aurretik eskatuta. Honi dagokion edozein aldaketa berariaz baimendu beharko du KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriak, horren ondoriozko gastuak erabiltzailearen kontura izango direlarik.
- Catering bat egitea kasu bakoitzean banaka ebaluatuko da. Horren antolaketa eta kostuak eskatzailearen kontura izango dira.
- Ekitaldiren bat ezarritako ordutegiaz harago luzatzen bada, ondoriozko gastuak programatzailearen kontura izango dira.
- Pertsona-kopuruaren kontrola erakunde antolatzailearen kontura izango da.
- Ekitaldia egin bitartean, horren publizitatea jarri ahal izango da beren euskarria duten elementuak (roll-up edo antzekoak) erabiliz soilik, KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriak adierazitako lekuetan.
- Ekitaldiaren publizitatean helbide osoa jarriko da: KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserria-Donostia

- Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren (UE) 2016/679 Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen eta datu hauen zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoak, xedatzen duenaren arabera, jakinarazten dugu eskatzailea izango dela egindako irudien, bideo edo audioaren tratamenduaren arduraduna, bere kontura izanik informatu beharra betetzea, baita irudiak hartzeko bertaratuen adostasuna lortzea ere.
- KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserri guneek beren enpleguak dituzte instalazioen eta ekipamenduen mantentze-lanetarako. Laguntzaileak, espezialisten lana eta abar behar baditu erabiltzaileak, bere kontura izango dira, baina betiere aurretik KutxaZabal Zentroa-Moneda Baserriaren baimena lortuta eta honen arduradunek ezartzen duten funtzionamendu-araubidearen barruan.
- Zentroaren arduradunarengandik jasotako agindu eta jarraibide guztiak betetzera konprometitzen da esleipenduna, batez ere Kutxa Fundazioak dituen guneetan egon litezkeen arrisku orokorreari buruz eta larrialdi-egoeraren bat gertatuz gero hartu beharreko neurriei buruz jasoko dituen argibideak betetzera.

☐ Bai, ados nago aretoa erabiltzeko arauekin
Izen-abizenak _____

Sinadura

ONARRIZKO INFORMAZIOA DATUEN TRATAMENDUAZ

Arduraduna	Kutxa Taldea: Kutxa Fundazioa, Kutxagestion Zerbitzuak S.L.U. eta Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa
Helburua	Aretoak erreserbatzeko gestioa
Legitimazioa	Interesdunaren adostasuna
Jatorria	Zuzenean interesdunak emanak
Hartzaileak	Ez da aurreikusten datuak hirugarren batzuei jakinaraztea, legezko betebeharra dagoenean izan ezik. Aukera hori baldin badago, bere adostasuna eskatuko zaio
Eskubideak	Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta beste leku batera eramateko eskubideak, eta Informazio Gehigarrian azaldutako beste eskubide batzuk
Informazio gehigarria	Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.kutxa.eus

☐ Irakurri dut eta onartzen dut **Datuen Babesari buruzko Politikaren Xedapen Gehigarria**
Izen-abizenak _____

Sinadura